

ArteDrama

Euskal Laborategia

ADEL 010



Aulestin (Bizkaia) / Apirilaren 5tik 11ra



Aurten ere, **Artedrama Euskal Laborategia (ADEL)**, arte eszenikoetan euskaraz lan egiten dugunontzako topagunea izango da; aktore, zuzendari, antzerkigile zein antzerkizale guztientzako urtero zabaltzen den gunea. Profesional zein ikasleentzako bideratuta dago aurtengo edizioa, beti ere Euskal Herriko arte eszenikoetan murgilduta gaudenon arteko eztabaidak eta elkartrukeak sustatzeko asmoarekin.

Aldi berean, ADEL 2010an parte hartzen duten profesionalak eskeiniko dituzten tailer irekiez aparte, Aulestiko herriak ere hainbat erakustaldi zein ekintza dramatiko jasoko ditu ADELEko partaideen eskutik, Aulesti Arte Astea-ren barruan.

Orain dela zenbait urte laborategi gisa jaiotako topagune honek badu oraindik zer hobetzerik. Aurreko edizioetan bezala, gure aurrekontu mugatuak ez digu uzten guk nahiko genituzkeen esperimentazio saio, erakusleiho zein artxibazio zentruak sortu, hala ere, oztopoak oztopo, ADELEk badu zer eskeintzerik, lan apal baina sakon bati esker, euskal arte eszenikoen esparruan, bai profesionali eta bai aditu zein zaleei. barruan aspaldi lanean dabiltzan ikerlari eta sortzaileak izango dira gurekin irakasle eta solaskide moduan.

MATRIKULA Ikastaro trinkoaren salneurria **350 €** da. Prezio honetan ikastaroaz gain, eguneko otorduak eta lo egitekoa barne daude.

HIZKUNTZA Ikastaro guztiak euskaraz izango dira.

Hauxek dira gurekin aste honetan egongo diren irakasleak:

ANDER LIPUS (FT I)

MANEX FUCHS (LE PETIT THEATRE DE PAIN)

GAITZERDI

PIERRE VISSLER

XABI STRUBELL (ZURA&DUT)

IRAKASLEAK ADEL010

ANDER LIPUS (12 orduko ikastaroa)

Markina (1971). Madrilen zazpi urtez lanean egon ondoren Bilbora itzuli eta beste artista batzuekin Mina espazioa sortu zuen. 1998an Antzerkiola Imaginarioa taldea sortu eta aktore eta zuzendari lanetan aritua., Beste zenbait antzerki taldekin ere egin du lan: Txalo, Hortzmuga, Sagarroi rock taldearekin; Hika Teatroa... Azken bost urtetan herriz-herriko antzerki-antropologia proiektua ere zuzendu du: "Ritos, gure azken lur zatia". Antzerki antropologian eta Mendebaldeko tradiziozko antzerkian aditua, batez ere Indiako kathakali antzerki-dantzak Kalamandalam Haridasan guruarekin ikasia.

MANEX FUCHS (8 orduko ikastaroa)

"1995-ean, Le Petit Theatre de Pain taldearen sortzaileetarikoa izandakoa. Talde horren izenean, hamar bat sorkuntza kolektibo eginik, Georges Bigot (Theatre du Soleil-en kidea) eta Cesar Brie (Teatro de los Andes-en kidea) zuzendariekin ere lan egin dut. Iparraldean, Antton Lukuren hiru obratan parte hartu dut, Hiru Puntu taldearen lehen urratsak. Baita Mattin Irigoienen tobera batean zirtzilaren kargua eman zidaten. Bizkaia aldean Maskarada taldearekin Koltes-en obra bat eman genuen. Azken aldi honetan, Joseba sarrionandiaren textu batzu oinarritzat harturik, ikuskizun baten prestatzen ari naiz Ander Lipusen zuzendaritza lagun izanik. Zer erran, besterik ere izan da, baina antzerkigintzaz ari giren honetan, hauek izan dira gehien mamitu nautenak"

GAITZERDI (14 orduko ikastaroa)

Gaitzerdi antzerki konpainia (Iñaki Ziarrusta & Borja Ruiz), Bilbon 1988an jaio zen. Sortu zenetik, bere ikuskizun ezberdinei aurre egiteko unean, lan-euskarri teoriko eta praktikoak antzerki hizkuntz berrien ikerkuntzan oinarritu dira (performanceak, kale antzerkia, areto antzerkia, bideo-klipak...). Ezin dugu hezkuntzan ere egindako lana ahaztu, alternatiba pedagogiko teatral desberdin bat sortuz irakaskuntzarako guneren bidez. Gaitzerdik sortutako antzezlanak batzuk: «SERRERIA» (1994), «ARIA PLASTIKA» (1995), «IRUDIAK» (1997), «Ireki Ateak» izeneko ikuskizun musiko-teatrala nazioarteko bira gauzatu zuten, (1998), «GIROBIRA» (1998).

PIERRE VISSLER (6 orduko ikastaroa)

Aspalditik antzerkiaren alde ilunean egonez geroz (batez ere soinu sorkuntzan) 2000ko urtean hasi dut argian. Ruzzante bat, hurrei hersatzen zen ikuskizun bat eta antzerki molde desberdinetik pasatu eta, clown munduan erori naiz (Nafarroko Uhartean eskolari esker). Nere clowna, aitzinetik eginen zuena jakin gabe agertu da edozein gunetan. 2009an, Mathieu Mendizabal (dantza), Jean-Christian Irigoyen (musika) eta hiruok Har Eman asmatu eta gauzatu dugu. Zer da Har Eman ? Antzezlanak, koreografia... ? 2010ko urtean clown arigi bat hasi dut Xiberoan Hebertik Kolektiboaren izenean.

XABI STRUBEL (8 orduko ikastaroa)

Xabi Strubell hondarribiko musikaria dugu ibilbide luzea egin duena euskal musikan. 15 urtekin DUT taldean hasi zelarik, 15 urte daramatza kontzertuak eta diskoak egiten, DUT, ANARI eta ZURArekin nagusiki, baina baita bestelako proiektuetan. Musikari gisa estilo anitzak jorratu ditu, betiere ukitu pertsonala bilatuz. Horregatik, ez da arraroa Xabi aurkitzea bere dj proiektuarekin sesio bat prestatzen, bestaldetik bideo-sorkuntza bati musika jartzen ari zaion bitartean edota ZURAKo kontzertu baterako ensaioak egiten ari dituen bitartean. Hortaz, artista aurpegi-anitza da, polirritmikoa eta polifonikoa. Poliedrikoa azken finean.

ANTOLATZAILEA: Artedrama
Laguntzaileak: Aulestiko Udala eta Aulestiko herria
615 77 95 11 info@artedrama.com